

***BILBAO EKINTZA EPEL-EN “KONTRATAZIORAKO
LAGUNTZEN” PROGRAMARAKO DEIALDIA***

***LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI
NAGUSIAREN 2025KO UZTAILAREN 15KO EBAZPENAREN
ESPARRUAN. HAREN BIDEZ, ARGITARA EMATEN DA
ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO 2025KO
DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA (144. EHAA, 2025/07/31ekoa)***

BILBAO EKINTZA EPEL (BILBOKO UDALA)

Bilbao Ekintza EPEL Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorkuntza sustatzen duen udal-erakundea da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailari atxikita dagoena; horretarako, hiria inbertitzeko leku erakargarri gisa sendotzen du eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetuz.

Bilbao Ekintza, EPELen helburuen artean, honako hauek daude:

- Enpresak erakartzea, sortzea eta haztea eta enpleguaren sorrera sustatzea.
- Bilbo hiri berritzaile eta garapen ekonomikoaren dinamizatzailerik gisa bistaratu eta kokatzea.
- Ekintzaileentzat eta enpresetarako garapen- eta aukera-espazio berriak sustatzea.
- Ekintzailetzan eta kultura ekintzailearen sustapenean berritzailea izatea.
- Hiriko garapen ekonomikoan eta sozialean esku hartzen duten eragileekin lankidetzak-sareak eta aliantzak ezartzea.
- Jarduera ekonomikoa eta soziala sustatzea, proiektu berritzaileen bidez.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2025ko uztailaren 14ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2025ko diru-laguntzen deialdia onetsi zuen. Erabakia Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko ebazpenaren bidez argitaratu zen 144. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2025ko uztailaren 31ekoan.

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian jasotako helburuen esparruan, deialdi honen bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartu nahi du; hori tokiko errealitate sozial eta ekonomikora egokituta dagoen esku hartzeko eredu malgu definituz lortu nahi du, produkzio-ingurunearen eta esku hartzen duten eragileen ezagutza sakonean oinarritua. Era berean, helburuak partekatzeko eta tokiko eragileekin jarduteko konpromisoak eta irizpideak zehazteko aukera emango duten akordioaren bidez, lurralde-kohesioa sustatzea bilatu nahi da.

Deialdiak, “2. mota – Kontrataziorako laguntzak” izeneko diruz lagundu daitezkeen proiektuen barruan, helburu hau duten laguntzen kategoria jasotzen du: “babes ekonomikoa ematea Lanbiden enplegu-eskatzailerik gisa izena emandako langabeak

tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatzea errazteko. Horretarako, hainbat jarduera abiarazi eta gauzatuko dituzte tokiko erakundeek beraiek nahiz beren mendeko erakundeek”.

Bilboko Udalak deialdi horretan parte hartu du eta 1.806.145,00 €-ko euroko diru-laguntza baten onuradun izan da, “kontrataziorako laguntzen” ekintzetarako xedatzeko.

Bestalde, Bilboko Udalak Bilbao Ekintza EPELi agindu dio aipatutako diru-laguntzari heltzen dioten proiektuak egikaritzea, haren Gobernu Batzarrak 2025ko abuztuaren 20an hori erabaki zuelako.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako araudiak ezartzen duenez, laguntza ekonomikoak oinarri arautzaile batzuen bidez banatu beharko da enpresa eskatzaileen artean, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak bermatuz. Betekizun hori deialdi honetan gauzatzen da, bai eta Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorrean ere.

Deialdiak ezartzen duen moduan, oinarri arautzaileak publiko egin aurretik, Lanbideren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio eta hasierako haren baimena lortu behar da. Bilbao Ekintza EPELi dagokionez, baimen hori 2025ko urriaren 22an eman da.

Azaldutakoan oinarrituta, Bilbao Ekintza, E.P.E.L.ko Administrazio Kontseiluak, 2025ko urriaren 29an, Bilbao Ekintzaren “Kontrataziorako Laguntzen” programarako 2025ko ekitaldirako deialdia onartu du.

1. XEDEA

Deialdi honen helburua Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak toki-enpresek ohiko merkatuan kontratatze laguntza ekonomikoa ematea da.

2. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

2.1. Lantokia eta ekonomia-jarduera Bilbo udalerriko lurralde-eremuan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan ahalko dira deialdi honetan xedatutako laguntzen onuradunak.

2.2. Erakunde onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea, **4.6** atalean ezarritakoarekin bat etorriz. Bilboko Udalarekiko zerga-egoera ofizioz egiaztatu ahal izango du Bilbao Ekintza EPELe.
- Beste administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik diru-laguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea eta jasota ez izatea enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kokaturiko kontratazioak formalizatzeko, Gizarte Segurantzako hobariak kanpo utzita (2023ko maiatzaren 18ko ebazpena).
- Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiborik eta ez egotea sartuta horretarako desgaitzen duten legezko debekuetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezartzen denarekin bat.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea, haien onuradun izatea lortze aldera.

Baldintza horiek onuradunek deialdi honek arautzen duen laguntza-programan parte hartzen duten denbora-tarte guztian bete beharko dira.

2.3. Erakunde onuradunei laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, bukatuta egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta haren erakunde autonomoek edo Bilboko Udalak berak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan abiarazitako edozein itzulketa- edo zehapen-prozedurak, oraindik izapidetzen ari bada.

2.4. Diru-laguntza hauen onuradun ezingo dira izan:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haien menpeko edo haiei lotutako erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak, laneratze-enpresak eta, oro har, enplegu-merkatu arruntetik kanpoko edozein erakunde.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak aldi baterako beste enpresa batzuei lagatzeko kontratatzeari dagokionez.
- Lan Ekintza-Bilbao SAre eta Bilbao Ekintza EPELen aurreko deialdietan eskuratutako laguntzak behar bezala aprobetxatu ez dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, hori berariaz adierazi bada.

3. KONTRATAZIOEN BALDINTZAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

3.1. Kontratazioen ezaugarriak

Lagunduko diren kontratazioek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntza-deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta haren xedearekin bat etorri beharko dute. Zehatz-mehatz, ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

- Kontratuak mugagabeen bidez formalizatu ahal izango dira kontratuak, bai eta ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere; halakoetan, gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da. Inola ere ez da onartuko aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea, ezta aldizkako kontratu finkoak ere.
- Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke, baina lanaldiaren % 50ekoak izan behar dute gutxienez.
- Diruz laguntzeko modukoak izan daitezen, kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute, eta, horretarako, aintzat hartuko da diruz lagundutako kontratuaren xede diren langileak lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko plantilla osoa. Kontratazioa egiten den unean, kontratu berriak batez besteko hori handitzea ekarri beharko du. Baldintza hori betetzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko honako arrazoi hauengatik azkendutako kontratuak:

diziplinazko kaleratzeak, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan-denboraren borondatezko murrizketa, langileen ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa edo baliaezintasun handia. Inguruabar hori Bilbao Ekintzak egiaztatu eta ziurtatu beharko du; horretarako, enpresak baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Kontratazioak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharko dira.

Bilbao Ekintzak dirulaguntza emateko ebazpena ematen duenean egin behar dira kontratazioak eta beti 2025ko abenduaren 31a baino lehenago.

Bilbao Ekintzak egiaztatu eta ziurtatuko du kontratuaren iraupena 12 hilabetekoa dela, gutxienez.

Lan-kontratuak diruz lagundutako iraupen-aldia amaitu aurretik amaitzen badira, edo, kontratu mugagabeen kasuan, lehenengo hamabi hilabeteetan amaitzen badira, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da eta, Ebazpenaren 14. eta 15. artikuluetan jasotako baldintzetan, bidezko prozedura izapidetuko da, salbu eta azkentze hori frogaldia ez gainditzeagatik, lana norberaren borondatez uzteagatik, bidezkotzat jotako kaleratzeagatik edo pertsonaren heriotza edo baliaezintasunagatik gertatzen bada; horrelako kasuetan dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuaren iraupenaren arabera murriztuko da.

Kontratua ezingo da inola ere 3 hilabete baino lehen suntsiarazi.

Itzultze hori ez da beharrezkoa izango kontratua iraungi zaion pertsona deialdi honen barruan kontratatu ahal izateko baldintzak betetzen dituen beste batekin ordeztzen denean, baldin eta kontratazio-aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuarena bada.

Enpresa kontratatzaileak 15 egun natural izango ditu, Gizarte Segurantzari baja hartzen duen egunetik zenbatzen hasita, diruz lagundutako aldia beteko duen beste kontratu bat formalizatzeko eta aldi horretan derrigorrezkoa izango da Bilbao Ekintzari jakinaraztea, deialdiaren baldintzak eta laguntza ematea eragin zuen hasierako kontratuaren ezaugarriak errespetatuta, bai eta, hala badagokio, emakume izatearen baldintza eta kolektibo-izaera ere.

3.2. Kontratatu beharreko pertsonen baldintzak:

Kontratatu beharreko pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Langabezian egon, hau da, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Langile Autonomoen Araubidean langile gisa alta eman gabe egotea.
- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda eta altan egotea.
- c. Bilboko udalerrian erroldatuta egotea, eta legezko egoitza bertan izatea. Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasota duen helbidea hartuko da kontuan

Baldintza guztiak, gutxienez, kontratatu aurreko egunean bete beharko dira.

Honakoak ez dira diruz lagunduko:

- a. Kontratatu aurreko sei hilabeteetan enpresa berean zerbitzuak modu mugagabearen ematen dituzten pertsonak kontratatzea.
- b. Ezkontideak, ondorengoak edo enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola daukateneekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo sozietateko forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako kideekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duten gainerako senideak kontratatzea, ezta administrazio-organoetako kideak kontratatzea ere.
- c. Enpresa batek langile bera kontratatzea aurreko deialdietan diru-laguntza jaso badu.

3.3. Laguntzen zenbatekoa

Hauek izango dira eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a. 8.000,00 euroko gehieneko laguntza lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.

- b. 3.000,00 euroko laguntza, artisten eta jendaurreko ikuskizunetako teknikarien eta laguntzaileen hiru hilabeteko lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko eta 6.000,00 euroko laguntza sei hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko edo hiru eta sei hilabete arteko kontratuak eginez gero dirulaguntza lan egindako lanaldiarekiko eta/edo denborarekiko proportzionala izango da.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.

- c. Talde hauetako pertsonak kontratatzen badira:
- o DSBE/BGDSren hartzaile titularrak edo onuradunak.
 - o 35 urtetik beherako pertsonak.
 - o Iraupen luzeko langabeak. Iraupen luzeko langabeak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo enpleguko beste zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dute pertsonak, badin eta kontratatu aurreko azken 540 egunetatik 360 enplegu-eskatzaileak izan badira.
 - o 55 urtetik gorako pertsonak.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, eta 7.500,00 eurokoa sei hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko.

Lanaldi partzialeko edo hiru eta sei hilabete arteko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Laguntza-mota honetan, amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100 gainditu, kontratu-amaierako

kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero. Zenbateko ekonomikoak % 10ean handituko dira kontratu horiek emakumeei eginez gero. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.

4. ESKAEREN AURKEZPENA ETA EMATEKO PROZEDURA

4.1. Eskaerak aurkeztea

Dirulaguntza hauek lehiaketa sinplearen erregimenaren bitartez deituko dira; beraz, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera hartuko dira kontuan, 4.3 apartatuan jasotako berezitasunekin. Prozedura interesdunek eskatuta hasiko da, adierazitako epeen barruan.

Dirulaguntzen eskabideak Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapeneko Arloari (Enplegua eta Talentua) bidali behar zaizkio dagoen plataformaren bitartez www.bilbaoayudascontratacion.eus. Aurkeztu behar den dokumentazioa eta informazioa aipatutako plataformaren eskakizun teknikoen arabera egokitu beharko da.

Entitate eskatzaileak zein motatako laguntza nahi duen adierazi beharko du eskabidean, eta laguntza hori ematen ez bazaio, ezin izango du beste mota bateko laguntzarik jaso baldin eta horren eskabidea aurkeztu ez badu.

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera, **2025ko azaroaren 17ko** 10:00etatik **2025ko abenduaren 19ko** 15:00ak arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Dena den, BAOn aipatutako hasiera-dataren ondoren argitaratzen bada, epea argitaratu ondorengo lehenengo egun baliodunean irekiko da, baina horrek ez du amaitzeko eguna aldatzea eragingo. Aurrekontu-partida agortzen ez bada, Bilbao Ekintzak eskabideak aurkezteko epea luzatu ahal izango du. Erabaki hori, edonola ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bai eta hasierako deialdia argitaratzen den gainerako komunikabide edo bitarteko guztietan ere.

Aurrekontu-partida deialdi honetan jasotako kopuruetara mugatuta dagoenez, hura

agortzeak eskatutako dirulaguntzak ukatzea ekarriko du, nahiz eta haiek eskaerak aurkezteko epean, aurreko paragrafoan adierazitakoan, egin, deialdi honen 4.4 ataleko azken paragrafoan jasotakoa gorabehera.

Deialdi honen izapideak arintze aldera, laguntzen eskatzaileek erabilgarria den helbide elektroniko bat eduki beharko dute laguntza izapidetzen den bitartean, dokumentazioaren aurkezpenean antzemandako gabeziak konpontzeko jakinarazpenak jasotzeko edo eskatutako laguntzak ebazteko behar den beste edozein errekerimendu edo komunikazio. Era berean, eskatzaileek adi egon beharko dute plataformaren bitartez egiten diren komunikazioak edo jakinarazpenak ikusteko.

4.2. Aurkeztu behar den dokumentazioa

Eskatzaileek Bilbao Ekintzaren webgunean egongo den plataformaren bitartez bete beharko dute eskabidea.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa kasu guztietan:

- Erantzukizunpeko Adierazpena legezko ordezkariarengatik sinatuta eta zigiluarekin.
- Foru Ogasunaren, Gizarte Segurantzaren eta Bilboko Udalaren ordainketekin egunean egotearen ziurtagiria, ordura arte eguneratuak, egiaztapenari uko egin dioten enpresek.
- Ekonomia-jarduera foru ogasunean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri eguneratuaren fotokopia (EJZ).

Autonomoek:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren autonomoen araubideko altaren fotokopia edo Gizarte Segurantzako oraingo egoeraren ziurtagiria.

Pertsona juridikoek:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.
- Eraketa-eskrituren fotokopia.
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Indarrean dagoen legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

Sozietate zibilek, ondasun-erkidegoek edo beste elkarte batzuk:

- Indarrean dagoen IFKaren fotokopia.

- Eraketa-eskrituren fotokopia edo estatutuena edo behar bezala erregistratutako eraketa-kontratua
- Ordezkaritza-botereen fotokopia.
- Indarrean dagoen legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia.

Bilbao Ekintza EPELek eskaera ebaluatzeko beharrezkoa deritzon edozein agiri eskatu ahalko dio eskatzaileari. Era berean, ekintzen kontrolerako eta jarraipenerako beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada edo oker badago, pertsona edo entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, eta, egiten ez badu, eskabidea artxibatuko da izapide gehiago egin gabe. Beharrezkoak diren zuzenketak egiteko epea **2026ko urtarrilaren 12ko** 10:00etan hasi eta **2026ko urtarrilaren 23ko** 15:00etan amaituko da.

Eskabideak onartzeko eta baloratzeko, hurrenkera kronologikoa hartuko da kontuan, eta zuzenketak ondo egiten badira oinarri hauetako atal honetan ezarritako epean, eskabidea aurkezteko hasierako data eta ordua hartuko dira aintzat eskatzaileen sarrera-hurrenkeraren erregistroa mantentzeko.

4.3. Eskabideak bideratzea eta balioestea

Deialdi honek biderapen-organo bat du, Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapenerako Arloari atxikitako langile teknikoek osatua.

Aurkezten diren eskaerak balioespen-batzorde batek ebaluatuko ditu; lehendakaritza batek, idazkaritza batek eta kide batek osatuko dute. Enplegu eta Talentuko arduradunak hartuko du lehendakaritza, Enplegu teknikiari bat izango da kidea eta teknikari batek —bideratzailea ez dena— egingo ditu idazkaritza-lanak.

Balioespen-batzordeak aurkezten diren eskabideak balioetsiko ditu, ezarrita dauden betekizunak betetzen diren egiaztatu ostean, eta horri buruzko txosten bat egingo du.

Organoa bideratzaileak, espedientea eta balioespen-batzordearen txostena ikusirik, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan diru-laguntza ematen edo ukatzen den adieraziko da.

Kontratazio guztiek emakumeen % 40ko gutxieneko ehunekoa betetzen dutela ziurtatu behar dela kontuan hartuz, (Bilbao Ekintza EPELeren kasuan % 55era heldu behar da Bilboko Udaleko Osoko Bilkurak 2020ko ekainaren 19ean egindako bileran hartutako erabakiaren arabera, udalaren planetan emakumeen kontratazio-kuota areagotzeko xedearekin) aurkeztutako eskaerak etengabe aztertuko ditu baldintza horren betearazpen-maila egiaztatze aldera. Ez-betetzea gertatzeko arriskua badago, eta eskakizun horren betearazpena kolokan ez jartzeko, kolektibo hori kontratatzea aintzat hartzen duten eskabideak aurreratu egingo dira ebazteko lehentasun hurrenkeran eta kopuru nahikoa aurreikusten ez duten eskabideen aurrean jarriko dira, aipatutako baldintza hori, Bilbao Ekintza EPELeren ustez, bete dadin.

Horregatik, emakumeen kontratazioa aurreikusten duten eta ebatzi ostean sexu horretako pertsona bat kontratatzeko hautagaitza bat azkenean aurkezten ez duten eskaerak deuseztatu egingo dira, eta, erakunde eskatzaileak nahi badu, baldintza berriekin bat datorren beste eskaera bat aurkeztu beharko du.

Aurreikusitako gehieneko laguntzen kopurua gorabehera, azkenean eman beharreko kopurua murriztu ahalko da emakumeak kontratatzeko jasotako eskaera-kopuruaren arabera; hala, nolanahi ere, helburuak betetzen direla bermatuko da.

4.4. Ebazpena

Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa.

Eskaera onesteko edo baztertzeko ebazpena, gehienez ere, sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Atal honetan jasotako epeak amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertu ahal izango dute interesdunek. Hala ere, gehieneko epe hori igarotzeak ez du eragotziko baiezko ebazpena ematea, hala badagokio.

Erakunde eskatzaileei diru-laguntza eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko zaie, bai eta guztizko zenbatekoa ere, hala badagokio. Eskaeren ebazpenak jakinaraziko zaizkie eskatzaileei.

Diru-laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertzeke errekurtsua jarri ahalko da.

Deialdi honetan jasotako aurrekontu-esleipena agortzeak nahiz Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak Bilboko Udalari deialdi honetan jasotako ekintzak egiteko aitortutako ekintza-kopuruaren irismenak eskatutako diru-laguntza ukatzea ekarriko dute, hura egin bitartean bajaren bat balego izan ezik. Kasu horretan, emandako azken laguntza-eskaera abiapuntu hartuta, sartzeko hurrenkerari jarraituko zaio, laguntza-mota errespetatuz.

4.5. Diru-laguntzaren onarpena eta langilearen kontratazioa

Entitate onuradunak dirulaguntza onartu duela joko da, baldin eta ez badu uko egitea beren-beregi aurkeztan dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta 5 eguneko epean.

Enpresak **4.6** atalean ageri den dokumentazioa, adierazitako epeetan kontratatutako edo kontratatu beharreko pertsonari buruzkoa, aurkeztu beharko du. Dokumentazio hori egiaztatutakoan, baldintza edo betekizunen bat betetzen ez bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzak emandako ebazpena ezereztuko du.

Laguntza kolektibo bateko pertsona bat kontratatzeke eskatu bada eta baldintza hori bete ez bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzak laguntza ezereztu egingo du.

Edozein kasutan, eskaeraren baldintzak hasierako unean bete behar dira.

Eskabidearen baldintzak kontratu-harremana hasten den unean bete beharko dira. Diruz lagundutako aldi osoan (Bilbao Ekintzaren egiaztapen-epea aintzat hartuta, hau da, 12 hilabete) lanaldiaren ehunekoa aldatu ahal izango da, betiere kontratazioaren hasierako baldintzak gutxienez hilabeteke epean betetzen badira eta lanaldiaren ehunekoa % 50etik gorakoa bada. Lanaldia atalase horretatik behera murrizteak laguntza ezeztatzea ekarriko du eta, hala badagokio, baita jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra ere.

Lanaldiaren ehunekoa aldatuz gero, azken likidazioan lan egindako lanaldiarekiko proportzionalki egokituko da dirulaguntza, eta ez da inola ere gaindituko diruz lagundutako gehieneko zenbatekoa.

4.6. Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa

Oro har, diru-laguntza bi alditan ordainduko da, eskatutako dokumentazioa ezarritako epeetan eta moduan aurkeztu eta egiaztatu ondoren:

Lehen ordainketa, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 40ri dagokiona, honako dokumentazio hau jasotakoan eta egiaztatutakoan emango da:

❖ Erakunde eskatzaileari buruz:

- Bankuko datuen fitxa (ereduaren arabera)
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketekin egunean egotearen ziurtagiria, ordura arte eguneratuak, egiaztapenari uko egin dioten enpresek.

❖ Kontratututako edo kontratatu beharreko pertsonari buruz:

- Indarrean dagoen kontratatutako pertsonaren identifikazio-kopia (NAN, ANT edo Europar Batasuneko pasaportea, erregistroko inskripzioarekin batera).
- Inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratatu ondoren jaulkita.
- Langilearen lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontratazioaren ostean egindakoa.
- Bilbon bizi dela eta berariazko kolektibo bateko kide dela egiaztatzen duen dokumentazioa, bidezkoa bada.
- Bilbao Ekintzak ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskatzen duen beste edozein.

❖ Kontratazioari buruz:

- Behar bezala sinatutako eta betetako pertsonaren lan-kontratuaren kopia, baita Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratu horretaz egindako komunikazioarena ere.
- Langilea Gizarte Segurantzari alta emanda dagoelako aitortpena.
- KDT, kotizazio-datuen txostena.

- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena” izena duten bi txosten, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorrita (dokumentuak elektronikoki bidaltzeko sistematik lortutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enpresaren lan-zentro guztietatik): bata kontratatutako pertsona enpresan alta eman den egunaren aurreko sei hilabetekoa eta bestea kontratazioaren egunekoa

Adierazitako dokumentazioa, gehienez ere, 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, aldeko ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatzen hasita, baldin eta kontratazioa ebazpena baino lehen egin bada. Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzak laguntza ezeztatuko du epe hauek bete ez izanez gero.

Lehen ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapenerako Arloari (enplegua eta talentua) bidaliko zaio dagoen plataformaren bitartez (www.bilbaoayudascontratacion.eus).

1. **Ordainketa doitua**, % 60koa, Bilbao Ekintzak dirulaguntza egiaztatu eta ziurtatu ahal izateko hamabi hilabeteak igaro badira
- ❖ Diruz lagundutako aldiko nominak eta bankuko ordainagiriak. Banku-transferentzien egiaztagiriak onartuko dira, baldin eta jaulkitzailearen kontua eta onuradunaren kontua zein izena ikus badaitezke. Nominak banku-txeke bidez ordaintzen badira, jaulkitzailearen kontuaren laburpena bidali beharko da. Bertan, dokumentuaren erreferentzia egon beharko da jasota, bai eta txekearen kopia bat. Txekea izenduna izan beharko da eta bankuan behar den moduan zigilatuta egon beharko da. Diruz lagundutako aldia justifikatzeko, ez da baliozkotzat joko diruz lagundutako kontratazioaren xede den soldata eskudirutan ordaintzea; kasu horietan, laguntza ezeztatu egingo da justifikazioa ez betetzeagatik.
- ❖ Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena, laguntza eskatu den aldian enpresan egon dela egiaztatzeko.
- ❖ LIZ (langileen izen-zerrenda), diruz lagundutako aldiko hilabetei dagokiena.

- ❖ KLO (kotizazioen likidazio-ordainagiria) eta ordainketaren banku-ordainagiria, diruz lagundutako aldiko hilabetei dagozkienak.
- ❖ KDT. Diruz lagundutako aldiko kotizazio-datuen txostena.
- ❖ Gizarte Segurantza eta Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria egiaztapenari uko egin dioten enpresek. Entitate onuradunek erakundeekin zorrik ez dutela ziurtatzeko, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du ziurtagiri horiek eskatzeko, errekeritu ondorengo data baten igorrita egon behar dutenak.

2. **Ekainaren 30eko ordainketa**, hamabi hilabeteak igaro **ez badira**, ebatzitako gehieneko zenbatekoaren % 60 izango da:

- ❖ Diruz lagundutako aldiko nominak eta bankuko ordainagiriak. Banku-transferentzien egiaztagiriak onartuko dira, baldin eta jaulkitzailearen kontua eta onuradunaren kontua zein izena ikus badaitezke. Nominak banku-txeke bidez ordaintzen badira, jaulkitzailearen kontuaren laburpena bidali beharko da. Bertan, dokumentuaren erreferentzia egon beharko da jasota, bai eta txekearen kopia bat. Txekea izenduna izan beharko da eta bankuan behar den moduan zigilatuta egon beharko da. Diruz lagundutako aldia justifikatzeko, ez da baliozkotzat joko diruz lagundutako kontratazioaren xede den soldata eskudirutan ordaintzea; kasu horietan, laguntza ezeztatu egingo da justifikazioa ez betetzeagatik.
- ❖ Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena, laguntza eskatu den aldian enpresan egon dela egiaztatzeko.
- ❖ LIZ (langileen izen-zerrenda), diruz lagundutako aldiko hilabetei dagokiena.
- ❖ KLO (kotizazioen likidazio-ordainagiria) eta ordainketaren banku-ordainagiria, diruz lagundutako aldiko hilabetei dagozkienak.
- ❖ KDT. Diruz lagundutako aldiko kotizazio-datuen txostena.
- ❖ Gizarte Segurantza eta Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria egiaztapenari uko egin dioten enpresek. Entitate onuradunek erakundeekin zorrik ez dutela ziurtatzeko, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du ziurtagiri horiek eskatzeko, errekeritu ondorengo data baten igorrita egon behar dutenak.

Bigarren kasu honetan, 12 hilabeteak igaro ondoren, Bilbao Ekintzak gainerako aldiari dagokion dokumentazioa eskatuko du, eta baldintzak bete direla ziurtatuko du eta bidezko **behin betiko likidazioa** egingo du, eta, beharrezkoa izanez gero, itzuli beharreko zenbatekoak **eskatuko ditu**, baita lehen ordainketakoak ere.

Dokumentazio hori, gehienez ere, 35 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, hamabi hilabete igaro ostean. Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzak laguntza deuseztatuko du.

Azken ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arlora (Enplegua eta Talentua) bidaliko zaio dagoen plataformaren bitartez (www.bilbaoayudascontratacion.eus).

Fase bakoitzean ezarritako epeak igarotzen direnean dokumentaziorik aurkeztu ez bada, Bilbao Ekintza EPELe eskubidea gordeko du emandako diru-laguntzaren laguntza deuseztatzeko eta, hala badagokio, entitate onuradunak emandako diru-laguntzaren kopuru osoa itzuli beharko du eta ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galduko du.

Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiak ordainketak idatz-zati honetan adierazitakoa ez den beste modu batean egitea erabaki ahalko du, uste badu, dauden inguruabarrak ikusita, sistema berriak laguntzen kudeaketa errazten duela. Ondorio horietarako, dirulaguntza ematen den unean dagoeneko amaituta dauden kontratazioen kasuan, Bilbao Ekintza EPELe eskubidea izango du kontratazioaren eta azken ordainketaren dokumentazioa aldi berean eskatzeko, eta ordainketa bakarra egiteko.

Ordainketak eraginkorrak izateko, Bilbao Ekintza EPELe Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako funtsak jaso beharko ditu.

Nolanahi ere, Bilbao Ekintza EPELe Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari proiektuaren justifikazio osoa aurkeztu ondoren horrek erabakitzen badu diruz lagundutako kopuruak osorik edo neurri batean itzultzea, Bilbao Ekintza EPELe erakunde onuradunari eskatu ahalko dio itzuli beharreko kopurua, baldin eta itzulketa erakunde horri egotz dakizkiokeen ez-betetzeen ondoriozkoa bada.

4.7. Diru-laguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Deialdi honetan xedatutako diru-laguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu eta helburu berberengatik beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen duten beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak ematen dituen hobariak izan ezik.

5. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEA ETA LAGUNTZEN ITZULKETA

5.1. Betebeharrak

Hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:

- Bilbao Ekintza EPELeren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, jarduera egin dutela eta diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua bete dutela.
- Bilbao Ekintza EPELek egin ditzakeen egiaztapen-jarduketei men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, bai naziokoek bai erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontroleko jarduera guztiei. Horretarako, aipatutako jarduketak egitean eskatzen zaien informazio guztia aurkeztu beharko dute.
- Bilbao Ekintza EPELeri jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratu izana. Horien guztien berri jakin eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea egunean dutela egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen.
- Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskaturik izatea, merkataritzako legeriak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken sektoreko legeriak eskatzen dutenaren arabera. Horrez gain, Bilbao Ekintza EPELek eskatzen dituen kontabilitateko egoera-orriak eta

berariazko erregistro guztiak izango dituzte, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak egokiro erabiltzea bermatzeko helburuarekin guztiok ere.

- Jasotzen diren funtsak aplikatzeko egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatu ahal direlako.
- Egindako ekintzen finantzaketa zabaltzea, erabilitako euskarrietan Bilbao Ekintza EPELeren logotipo ofiziala txertatuz, bai eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarena ere, bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania), jardueren publizitateko elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntzaren xede den jarduera sustatzeko esku-hartze publikoak eta, hala badagokio, megafoniaz ematen diren mezuak elebidunak izango dira, euskara eta gaztelania ordena horretan erabiliz.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan azaltzen diren kasuetan jasotzen diren funtsak itzultzea.
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko ebazpenean eta oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzea.
- Fiskalizazio-funtzioak betetzean eskatzen zaien informazioa ematea Bilbao Ekintza EPELeri, laguntza honen kontura jasotako diru-laguntzei buruz.
- Hasierako baldintzen edozein aldaketa edo kontratazioaren ondoren sortzen den edozein arazo jakinaraztea unean-unean.
- Bilbao Ekintza EPELerekin lan egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko Ebazpenean adierazitako kontrataziorako laguntzen onuraduna izateagatik (hasieran zein ondoren) eskatu ahal zaizkion betebeharrak guztiak betetzeko.
- Gainera, Bilbao Ekintza EPELek diruz lagundutako proiektuari buruz egoki irizten dien ikuskarpen guztiak egin ahalko ditu.

5.2. Ez-betetzea eta laguntzak itzultzea

Aurreko atalean deskribatutako betebeharren bat betetzen ez bada, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du emandako diru-laguntza deuseztatzeko eta ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko, hala badagokio.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta diru-laguntza ordaindu den unetik diru-laguntza itzuli behar dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatzea.

Itzultzeko prozedura izapidetzean, entitate onuradunaren entzunaldi-eskubidea errespetatuko da; horren ondoren, entitatearen sail teknikoak horren gaineko txostena emango du. Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak emango du itzultzeko betebeharraren gaineko ebazpena, eta erakunde onuradunari jakinaraziko zaio.

Entitate onuradunaren betetzea erabateko betetzera nabarmen hurbiltzen denean eta hark zalantzarik gabe bere konpromisoak betetzea xede zuen jarduketa egin duela egiaztatzen duenean, diruz laguntzen den jardueraren betetze-kopuruak edo betetze-mailak zehaztuko du itzuli beharreko zenbatekoa, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

6. ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintza EPELek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horrexegatik, hain zuzen ere, programak garatze aldera kanpoko aholkularien lana beharrezkoa denean, Bilbao Ekintza EPELek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die zereginak direla medio ezagutu dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

7. AURREKONTU-ESLEIPENA

Bilbao Ekintza EPELek deialdi honetan jasotako laguntza ekonomikoetarako 1.806.145,00€ xedatuko ditu.

Eskabideak aurkezteko eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat, eta, betiere, deialdirako dagoen kredituaren mugaraino eta baliagarri dagoen kredituaren arabera.

Ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, ez dira laguntza gehiago emango eta

ez dira ebazteke dauden eskabideak onartuko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa % 10 handituko da, aurreko kontratuak emakumeei eginez gero.

8. PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA

Laguntza-planaren deialdia 4.1 puntuan ezarritako epean aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaie. Baldin eta programa indarrean egon bitartean beharrezkoa bada haren alderdietako bat garatzea edo programaren muina aldaraziko ez duen egokitzapenen bat egitea, bereziki Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako jarraibideen ondoriozko alderdiak sartzeari dagokionez, Administrazio Kontseiluak Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza gaitzen du aldaketa horiek egin ditzan; horien berri eman beharko dio Kontseiluari aldaketen erabakia hartu ondoren egiten den lehenbiziko bileran. Ondorengo informazio hori ez da beharrezkoa izango, esaterako, laugarren oinarrian ezarritako eskabideak aurkezteko sistemari dagozkion neurri operatiboak hartu behar diren kasuetan.

Zehazki eta eraginkortasun-arrazoiengatik, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak gaitasuna izango du eskabideen epea luzatzeari buruz ebazteko, baldin eta aurrekontu-kontsignazioa agortzeko arriskua badago, deialdiaren 4.1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

9. DATU PERTSONALEN BABESA

Tratamendu-jarduera	Enplegua eta talentua
Tratamenduaren arduraduna	Bilbao Ekintza EPEL. IFK: Q-4800731D Helbidea: Navarra kalea, 5. 48001 Bilbo Web orria: www.bilbaoekintza.eus Telefonoa: 944 20 53 00
Helburua	Bilboko udalerrian enplegua eta aberastasuna sortzen lagunduko duten kalitatezko zerbitzuak eskaintzea; ataza horiek lurraldeko kolektibo, erakunde, eragile eta enpresekin lankidetzan koordinatutako jardueren bitartez burutuko dira.

	Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Udal Erakundeak garatutako ekintzek interes publiko nabarmena dutenez, Bilboko herritarrentzat onuragarriak direlako, erabiltzaileei beren interesekoak izan daitezkeen ekintza eta zerbitzuen berri eman dakieke, betiere Erakundeak Ekonomiaren Garapen eta Enplegu arloan dituen udal-eskumenekin zerikusia dutenak.
Tratamenduaren legitimazioa	DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baimena. DBEO: 6.1.e) Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misioa betetzeko beharrezko tratamendua.
Pertsona/Erakunde jasotzaileak / Nazioarteko transferentziak	Bai, datu pertsonalak lagatzea aurreikusten da. Ez dago aurreikusita datuen nazioarteko transferentziarik.
Eskubideak baliatzea	Interesdunek honako eskubide hauek dituzte: 1. Bere datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta tratamendua mugatzea edo tratamendu horren aurka azaltzea; horretarako idazki bat bidali beharko da tratamenduaren arduradunaren helbidera, norberaren nortasuna egiaztatu ondoren. 2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erreklamazioa aurkezteko eskubidea.
Informazio osagarria	BILBAO EKINTZA EPELeK egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, helbide elektroniko honetara jo dezakezu: datos@bilbao.eus , datu pertsonal hauen tratamenduari buruzko informazio gehiago eskatuz.

10. ERAKUNDE ONURADUNAK DIRU-LAGUNTZARI BURUZKO PUBLIZITATEA EGITEA

Erakunde onuradunek berariaz agerrarazi beharko dute Bilbao Ekintza EPELeren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa deialdi honen barruan finantzatutako jarduera guztietan, horiek hedatu, zabaltu edo, hala badagokio, argitaratzean.

Diruz lagundutako jardueraren izaerak ez badu ekartzen hedapen-, zabalkunde- edo argitaratze-ekintzak egiterik, orduan logotipo horiek ez dira diruz lagundutako enpresaren beste dokumentu batzuetan jasoko, Bilbao Ekintza EPELeren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzaren irismenari dagokionez nahasmendu edo akatsik ez eragiteko.

11. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen arautegia betetzeko, Bilbao Ekintza EPELe bere webgunean eta aldizkari ofizial egokietan argitaratuko ditu ematen diren diru-laguntzak.

12. PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK

Diruz laguntzen diren proiektuak garatze aldera, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Giza eskubideen adierazpen unibertsalean xedatutakoa ezingo dute urratu.
- b) Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekiko konpromisoa izango dute eta emakumeen partaidetza aktiboa sustatuko dute.
- c) Hizkuntza inklusiboa erabiliko dute generoari dagokionez.
- d) Ez dira bereizkeriazkoak izango sexu, jatorri geografiko, kultura, adin, genero, nortasun, sexu-praktika eta abarrengatik.
- e) Ingurumen-jasangarritasuna sustatuko dute.
- f) Zabaltzean eta gauzatzean, ahal bada, euskara eta gaztelania erabiliko dituzte; nolanahi ere, proiektuen eremuak hala eskatzen duenean, beste hizkuntza batzuk erabili ahalko dira.

13. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko ebazpenean (haren bidez, argitara ematen da enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2025ko diru-laguntzen deialdia) aurreikusten ez direnetarako, xedapen hauek aplikatuko dira: Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra (138. BAO, 2016ko uztailaren 20koa), diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, baita administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legea ere, gehigarri moduan.

Ordenantzak azaroaren 26ko 30/1992 Legea aipatzen badu, honako lege hauen aipamentzat joko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko
urriaren 1eko 40/2015 Legea.